

BERGARAKO UDALA
ADMINISTRARIEN LAN-POLTSA
BIGARREN ARIKETA

Oposizioaldiko bigarren ariketak ondorengo hau dio:

2. Bigarren ariketa: Azterketa psikoteknikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala, nahitaezkoa izangai guztientzat eta baztertzaila (40 puntu).

Aurreko lehenengo ariketa gaingitu duten izangaiei azterketa psikoteknikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala egingo zaie, hautagaien egokitze-maila baloratzeko bete behar den lanpostuaren giza eta teknika alorreko ezaugarriekiko.

Ariketa honi gehienez 40 puntu emango zaizkio eta egingo diren proba bien puntuazioaren erdia gaingitu beharko da eta gutxienez 25 puntu atera beharko dira ariketa gaingitzeko, proba bakoitzaren puntuazioa epaimahaiak jakitera emango duelarik aurrez.

Epaimahaiak honako hauek erabaki ditu:

- 1.- Noiz izango da: Urtarrilaren 26an goizeko 10:00etan.
- 2.- Non: UNEDen egoitzan (San Martin plaza).
- 3.- Ariketaren inguruko informazio osagarria argitaratuko da urtarrilaren 24 eta 25a bitartean Bergarako udalaren WEB orrian

Bergaran, 2021eko abenduaren 29an

Epaimahaiko idazkaria

